

AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA, Zarauzko Udaleko idazkaria naizen honek

ZIURTATZEN DUT: 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuela:

“ZARAUTZI BURUZKO GRADU AMAIERAKO LANAK (GRAL) ETA MASTER AMAIERAKO LANAK (MAL) LAGUNTZEKO GAZTERIA DEPARTAMENTUAREN BEKAK

Espedientea 2023WWWW0004

Gazteria Departamentuak 2024. urtean, lehendabizikoz, Zarautzi buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) laguntzeko bekak eman nahi ditu, esperientzia pilotu bezala. Horien asmoa da Zarautzen unibertsitateko ikasketak egiten ari diren gazteak bultzatzea ikasturte amaierako lanetan Zarautzi buruzko errealitateak aztertzeraz.

Horretarako, eta 38/2003 Legearen 23.2 a) artikuluan oinarrituta, aipatutako beken oinarriak deialdiaren barruan doaz, beren espezifikotasunagatik eta kontuan izanda deialdi bakar hau soilik arautuko dutela.

Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- Zarautzi buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) laguntzeko bekak emateko 2024. urteko deialdia onartzea (oinarriak barne hartzen ditu).

Bigarrena.- Ondorengo gastua onartzea:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2024	1001.480.01.337.20	5.000 €

Hirugarrena.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku utziko du deialdiaren laburpena, argitara dezan. BDNSk deialdiari eman dion identifikazio-kodea agertu beharko da laburpenaren argitalpenean.

ZARAUTZI BURUZKO GRADU AMAIERAKO LANAK (GRAL) ETA MASTER AMAIERAKO LANAK (MAL) LAGUNTZEKO BEKAK

AURKIBIDEA

1. Oinarriak



ZARAUZKO UDALA

- 1.1. Justifikazioa
 - 1.2. Helburua
 - 1.3. Beka eskatzeko baldintzak
 - 1.4. Onuraduna izateko debekua
 - 1.5. Eskaerak
 - 1.6. Bekaren zenbatekoa
 - 1.7. Laguntza emateko prozedura
 - 1.8. Tramitazioa
 - 1.9. Ebazpena
 - 1.10. Zuzkidura eta aurrekontu partida
 - 1.11. Onuradunen betebeharrak
 - 1.12. Bekak ordaintzea
 - 1.13. Bekaren xedea justifikatzea
 - 1.14. Publizitatea
 - 1.15. Beka itzultzea
 - 1.16. Araudia
-
2. Deialdia
 - 2.1. Helburua
 - 2.2. Eskaera
 - 2.3. Akatsak zuzentzea
 - 2.4. Onuraduna izateko debekua
 - 2.5. Instrukzioa eta proposamena
 - 2.6. Bekaren zenbatekoa
 - 2.7. Zuzkidura eta aurrekontuen partida
 - 2.8. Dirulaguntzak emateko irizpideak
 - 2.9. Ebazteko eta jakinarazteko epea
 - 2.10. Bekaren erabileraren justifikazioa
 - 2.11. Beka itzultzea
 - 2.12. Publizitatea
 - 2.13. Araudia
 - 2.14. Errekurtsoak
 - 2.15. Informazioa

1. OINARRIAK

1.1. JUSTIFIKAZIOA

Orain arte Gazteria Departamentuak bi dirulaguntza eman izan ditu: alde batetik, GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK; eta, bestetik, GAZTEEK PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK. Gazteria Departamentuko dirulaguntzak arrakastatsuak dira, eta urtero talde askok aurkezten dituzte beren programazioak. Baina, gazteek proiektuak egiteko dirulaguntzei dagokienez, zailtasunak izan ditugu gazteengana gerturatzeko, eta gazteek proiektuak aurkezteko. Hori dela-eta, hausnarketa-ildo berri bati ekin diogu, eta horrek beste dirulaguntza-lerro bat lantzea ekarri du. Lan horren emaitza da Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) idazteko beken deialdi hau.

Proba gisa, 2024an, Zarautzen unibertsitateko ikasketak egiten ari diren gazteak bultzatu nahi ditugu ikasturte amaierako lanetan Zarautzi buruzko errealitateak aztertzeraz. Izan ere, berez, urtez urte, gazte askok egiten dituzte horrelako lanak dagokien titulazioa lortzeko, eta askotan lan horiek ordenagailuaren bazter batean geratzen dira.



ZARAUZKO UDALA

Gainera, lanok aukera emango dute Zarauzko errealitateak diziplina eta korrante desberdinetatik aztertzeko, eta gazteek egiten duten lana balorean jartzeko.

2024a lehen urtea izanik, beka hauek proba gisa erabiliko dira herritarren aldetik duten erantzuna ikusi eta baloratzeko.

1.2. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da baldintza batzuk jartzea, Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuak gazteei, norgehiagoka araubidez, beka emateko Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) idazteko.

Beka horien bidez, gazteen lanei balioa eta hedapena eman nahi zaie, betiere, lanok Zarautzekin erlaziorik badute (ekimenak, zerbitzuak, industria, historia...). Bekak eman ondoren, Udalak antolatutako aurkezpen-saio publiko bat egingo da.

Gehienez ere 5 beka emango dira (1.000 € lan bakoitzeko).

1.3. BEKA ESKATZEKO BALDINTZAK

Baldintza hauek betetzen dituzten gazteek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauetan araututako laguntzak:

21 eta 30 urte bitarteko adina izatea. Bekaren onuradunak Zarautzen erroldatuta egon beharko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta, gainera, Zarautzen erroldatuta egon beharko du aurreko hiru urtetan (etenik gabe), edo gutxienez 10 urtetan, etenekin.

Beka hau GRALeko eta MALeko ikasgaian matrikulatuta daudenek soilik eskuratu ahal izango dute; horri dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Beka eskatzeko nahitaezkoa izango da GRALa edo MALa egiteko matrikulatuta egotea. Udalak aztertuko ditu jasotako proiektuak eta fakultateko 6ko gutxieneko kalifikazioa jaso ez dutenak atzera botako ditu. Ondorioz, ikasle horiek ez dute jasoko bekaren bigarren zatia eta lehenengo zatia itzuli egin beharko dute.

Lanak Zarautzi buruzkoak izango dira eta euskaraz idatzitakoak; Zarautzen bertan egingo den aurkezpena ere euskaraz egin beharko da, ondorioz, hiru baldintza horiek betetzen ez dituen proiektuak ez dira onartuko.

Horrez gain, bekaren eskaera egunean adin nagusikoa dela egiaztatu beharko du eskatzaileak.

1.4. ONURADUNA IZATEKO DEBEKUA

Oinarri hauetan araututako beka ezingo ditu jaso ondorengo egoera batean dagoen pertsonak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusten dituen egoeraren batean daudenak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa



ZARAUZKO UDALA

egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

Eskatzaileak lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiazta dezake onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien orde, erantzukizunpeko adierazpenak aurkez daitezke.

1.5. ESKAERAK

GRALa edo MALa egin nahi duten pertsona fisikoek eskatu ahal izango dituzte bekak.

Bekak emateko prozedura ofizioz hasiko da, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

Eskaerek Gazteria Departamentuaren urteko deialdian zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

Eskaerarekin batera, indarrean dauden arauak eta urteroko deialdiak ezarritako dokumentazioa ere aurkeztuko da.

Eskaerak honako agiri hauekin aurkeztuko dira:

- a) Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasun-agiria.
- c) Errolda-agiria.
- d) Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak betetzen dituela ziurtatuko du Udalak.
- e) Eskatzailea onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duen ziurtagiria.
- f) Eskatzaileak irekitako kontu-korrante baten jabetza ziurtatzen duen agiria.
- g) Eskatzailearen Curriculum Vitae.
- h) Beka jasotzeko aurkeztu den proiektuaren azalpen-txosten zehatza (prestatutako txantiloien arabera).

Eskatzen den agiriren bat Zarauzko Udaleko organoren baten esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatzen duena; hortaz, agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, baldin eta dokumentu horiei dagokien prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Eskaerak eta dagokion dokumentazioa Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkeztuko dira (Kale Nagusia 29 - 20800 Zarautz):

- Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Zerbitzua): astelehenetik ostiralera 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik 19:00etara.

Horrez gain, eskaerak bide elektronikotik aurkez daitezke (BAKQ - izenpe txartelaren bitartez) eta baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan adierazitako beste bide eta leku batzuetan ere.

Eskaera-orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; hala egiten ez badu, bere eskaera bertan behera utzi duela pentsatuko da, Administrazio Publikoen Administrazio



ZARAUZKO UDALA

Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

Eskariak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

1.6. BEKAREN ZENBATEKOA

Gehienez 1.000 € emango zaizkio bekadun bakoitzari.

1.7. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Bekak norgehiagoka araubidez emango dira.

Gehienez 5 beka emango dira. Hortaz, aurkeztutako lan guztiak jaso ondoren, Balorazio Batzordeak hurrenkera bat proposatuko du jarritako irizpidearen arabera. Hona hemen hurrenkera osatzeko irizpideak:

Irizpideak:

- Lanaren bukaerako nota: 70 puntu
- Aurkeztutako lana berritzailea izatea: 10 puntu
- Gazteriaren ikuspegia izatea: 10 puntu
- Genero-ikuspegia txertatuta izatea: 10 puntu

Gainera, beherago zehazten den moduan, lanek 10etik gutxienez 6ko nota izan beharko dute.

1.8. TRAMITAZIOA

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da. Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Gazteriako teknikaria.
- Balorazio Batzordea: Kide anitzeko organo bat eta gai akademikoetan aditua den kanpoko eragileren bat (edo gehiago).
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Gazteria Departamentuak tramitatuko du beka emateko prozedura; beraz, berak zehaztu, eskuratu eta frogatuko ditu, ofizioz, ebazpen-proposamena egiteko behar diren datuak.

Gazteria Departamentuak beka-eskaerei buruz egingo duen aurre-ebaluazioarekin hasiko da instrukzio-fasea. Aurre-ebaluazioak egiaztatuko du (i) eskatzaileak betetzen dituela bekaren onuradun izateko jarritako baldintza guztiak eta (ii) aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Gazteriako teknikariak beka-deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio-txostena egingo du.

Eskaerak ebaluatu ondoren, behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du Balorazio Batzordeak, eta organo eskudunari aurkeztuko dio ebatzi dezan.

Ebaluazioaren emaitza beka ukatzekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, interesdunei 10 eguneko epea emango zaie, entzunaldi-tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

1.9. EBAZPENA

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.



ZARAUZKO UDALA

Ebazpena arrazoitu egingo da; alegia, prozeduran egiaztatu egin beharko dira onartutako ebazpenaren oinarriak, eta horretarako kontuan izango dira bekak emateko arauetako irizpide objektiboak.

Beka emateko ebazpenak argi eta garbi adierazi beharko ditu honako hauek: xedea, eskatzailea edo eskatzaile-zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, eta bekaren oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenean adierazi egin beharko dira haren aurka egiteko dauden errekurtsio-bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko; eta hori guztia, interesdunek beste edozein errekurtsio-bide erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

Oinarri hauetan aurreikusten diren bekak emateko prozeduraren barnean gertatzen diren ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, indarrean dagoen araudiak jasotzen duenaren arabera.

1.10. ZUZKIDURA ETA AURREKONTU PARTIDA

Beken zuzkidura eta aurrekontuko partidak Gazteria Departamentuaren urteko deialdian ezarriko dira.

1.11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunen betebeharrak:

- a) Bekak lortzeko egin beharreko GRALa eta MALa egin eta aurkeztu. Lan horiek Zarautzen aurkeztu, Gazteria Departamentuaren laguntzarekin.
- b) Aurkeztuko diren lanen gaia (ikasketa eremuko GRALa edo MALa) Zarauzko testuingurura egokituko dira; lantegi batekin lotuta, espazio bat...
- c) Beka emateko jarritako betekizun eta baldintzak bete, aurkezpena egin eta beken xedea bete.
- d) Organo emaileak indarrean dagoen legediaren arabera egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzieroko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.
- e) Zarauzko Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta edukiko ditu.
- f) Lau urteko epean gordeko ditu hartutako fondoak aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak (dokumentu elektronikoak barne), egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.
- g) Edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.
- h) Jasotako fondoak itzuliko ditu, indarreko araudian aurreikusitako kasuetan.
- i) Lanean jasota geratuko da Zarauzko Udalaren dirulaguntza jaso duela.
- j) Onuradunak indarrean dagoen araudi aplikagarri guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- k) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudien arabera honako baldintza hauek bete beharko ditu:
 - Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, genero-ikuspegia txertatu beharko du diruz lagundutako programan edo jardueran.



- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.
- Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
- Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak edo sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

1.12. BEKAK ORDAINTZEA

Laguntzak ordaintzeko, aurrez Gazteria Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da beka emateko oinarrietan jarritako baldintzak bete direla.

Bekak bi zatitan ordainduko dira, banku-transferentzia bidez. Dirulaguntzaren lehen ordainketa beken behin betiko ebazpena emandakoan egingo da (kopuru osoaren % 75). Gainerako % 25a, lanak amaitu eta aurkezpena egiten denean.

Ez dago graduazio-irizpiderik; erabiliko den irizpide bakarra izango da lana egin dela ziurtatzea eta lan horretan 10etik gutxienez 6ko puntuazioa atera izana.

1.13. BEKAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Deialdian zehazten den azken eguna baino lehen justifikatu beharko da beka. Horretarako, GRALaren edo MALaren ale bat aurkeztu beharko da (PDF formatuan) eta epaimahaiak lanari emandako bukaerako balorazioaren ziurtagiri ofiziala. Baldintza hori betetzen ez bada, beka itzuli egin beharko da.

1.14. PUBLIZITATEA

Emandako beken zerrenda Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da.

Bestalde, beken onuradunek diruz lagundutako lanaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko dute, euskaraz soilik. Publizitate horretan, lehenetsuneko tokian, Zarauzko Udalaren logotipoa eta esaldi hau azalduko da (lanaren azalean edo hasieran): "*Jarduera honek Zarauzko Udalaren laguntza jaso du*".

Finantzaketa publikoari buruzko aipamenak ere egingo dira lanaren aurkezpena egiten denetan.

1.15. BEKA ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo bekaren emakidan jarritako edozein baldintza betetzen ez bada, beka berriro aztertuko da, eta, horren arabera, Zarauzko Udalak aukera izango du hura atzera botatzeko eta jasotakoa itzul dadila eskatzeko, indarreko legedian aurreikusten diren baldintzetan.

1.16. ARAUDIA

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.

2. DEIALDIA



ZARAUZKO UDALA

2.1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da baldintza batzuk jartzea, Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuak gazteei, norgehiagoka araubidez, beka emateko Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) idazteko.

Beka horien bidez, gazteen lanei balio eta hedapena eman nahi zaie, betiere, lanok Zarautzekin erlaziorik badute (ekimenak, zerbitzuak, industria, historia...). Bekak eman ondoren, Udalak antolatutako aurkezpen-saio publiko bat egingo da.

Gehienez ere 5 beka emango dira (1.000€ lan bakoitzeko).

2.2. ESKAERA

GRALa edo MALa egin nahi duten pertsona fisikoek eskatu ahal izango dituzte beka.

Eskatzaileek hurrengo baldintzak ere bete beharko dituzte:

- 21 eta 30 urte bitarteko adina izatea.
- Zarautzen erroldatuta egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta, gainera, Zarautzen erroldatuta egon beharko da aurreko hiru urtetan (etenik gabe), edo gutxienez 10 urtetan, etenekin.
- GRALeko eta MALeko ikasgaien matrikulatuta egotea.
- GRAL eta MALetan 6ko gutxieneko kalifikazioa jasotzea.
- GRALak eta MALak Zarautzi buruzkoak izatea eta euskaraz idatzita.
- Zarautzen bertan egingo den aurkezpena euskaraz egitea.

Eskaerarekin batera, indarrean dauden arauetan eta deialdi honetan ezarritako dokumentazioa ere aurkeztuko da.

Eskaerak honako agiri hauekin aurkeztuko dira:

- a) Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta (P-01).
- b) Eskatzailearen nortasun-agiria.
- c) Errolda-agiria.
- d) Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak betetzen dituela ziurtatuko du Udalak.
- e) Eskatzailea onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duen ziurtagiria.
- f) Eskatzaileak irekitako kontu-korronte baten jabetza ziurtatzen duen agiria.
- g) Eskatzailearen Curriculum Vitaea.
- h) Beka jasotzeko aurkeztu den proiektuaren azalpen-txostena zehatza (prestatutako txantiloien arabera).

Eskatzen den agiriren bat Zarauzko Udaleko organoren baten esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzaileak erabil dezake Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatzen duena; hortaz, agiriak, zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, baldin eta dokumentu horiei dagokien prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Eskaerak eta dagokion dokumentazioa Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkeztuko dira (Kale Nagusia 29 - 208000 Zarautz).

- Udaletxe (HAZ-Herritarren Arreta Zerbitzua): astelehenetik ostiralera, 7:30etatik 15:00etara; ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara.

Horrez gain, eskaerak bide elektronikotik aurkez daitezke (BAKQ - izenpe txartelaren bitartez) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan adierazitako beste bide eta leku batzuetan.

Beken eskaera hilabeteko epean egin ahal izango da, irailaren 15etik urriaren 15era.

Eskariak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

2.3. AKATSAK ZUZENTZEA

Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehienezko epe luzaezinean zuzen dezala eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, betiere alde zurretik ebazpena emanda. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango da.

2.4. ONURADUNA IZATEKO DEBEKUA

Deialdi honetan araututako beka ezingo ditu jaso ondorengo egoera batean dagoen pertsonak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aurreikusten dituen egoeraren batean daudenak.
- Uztailearen 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

Eskatzaileak lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiazta dezake onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien orde, erantzukizunpeko adierazpenak aurkez daitezke.

2.5. INSTRUKZIOA ETA PROPOSAMENA

Instrukzioa eta proposamena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 17. artikuluan ezarritakoren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Gazteriako teknikaria
- Balorazio Batzordea: Kide anitzeko organo bat eta gai akademikoetan aditua den kanpoko eragileren bat (edo gehiago).
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

2.6. BEKAREN ZENBATEKOA

1.000 euro emango zaizkio bekadun bakoitzari.

2.7. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUEN PARTIDA



ZARAUZKO UDALA

Dirulaguntza ondoko aurrekontu-partidatik aterako da, eta gehienezko kopurua ondorengo izango da:

- **Aurrekontu-partida:** 1001.480.01.337.20 (7452).
- “Bekak: Gazteen ikasketak finantzatzeko”: 5.000€

Dirulaguntzak honela banatuko dira:

- Kopuru osoaren %75a, beken behin betiko ebazpena emandakoan.
- Gainerako %25a, lanak amaitu eta aurkezpena egiten denean.

2.8. DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Balorazio Batzordeak hurrenkera bat proposatuko du jarritako irizpidearen arabera. Hona hemen hurrenkera osatzeko irizpideak:

- Lanaren bukaerako nota: 70 puntu.
- Aurkeztutako lana berritzailea izatea: 10 puntu.
- Gaztediaren ikuspegia izatea: 10 puntu.
- Genero-ikuspegia txertatua izatea: 10 puntu.

Gainera, lanek 10etik gutxienez 6ko nota izan beharko dute.

2.9. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen proposamena egin aurretik, 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da. Dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Eskariak ebazteko gehienez hiru hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako esanbidezko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi direla ulertuko da.

Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, urriaren 1ko 39/2015 Legeak 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Emandako dirulaguntzak argitaratuko ditu Udalak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 18. artikuluan jarritakoaren arabera.

2.10. BEKAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 31 baino lehen justifikatu beharko da beka. Horretarako, GRALaren edo MALaren ale bat aurkeztu beharko da (PDF formatuan) eta epaimahaiak lanari emandako bukaerako balorazioaren ziurtagiri ofiziala. Baldintza hori betetzen ez bada, beka itzuli egin beharko da.

2.11. BEKA ITZULTZEA

Deialdi honetan jarritako edozein baldintza betetzen ez bada, beka berriro aztertuko da, eta, horren arabera, Zarauzko Udalak aukera izango du hura atzera botatzeko eta jasotako beka itzultzeko eskatzeko, kontu-korronte hauetako batean diru-sarrera eginez:

- KUTXABANK: ES45 2095 5076 41 1060000246
- LABORAL KUTXA: ES86 3035 0029 62 0290900002

2.12. PUBLIZITATEA

Emandako beken zerrenda Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da.

Bestalde, beken onuradunek diruz lagundutako lanaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko dute, euskaraz soilik. Publizitate horretan, lehentasunezko tokian, Zarauzko Udalaren logotipoa eta esaldi hau azalduko da (lanaren azalean edo hasieran): “*Jarduera honek Zarauzko Udalaren laguntza jaso du*”.



ZARAUZKO UDALA

Finantzaketa publikoari buruzko aipamenak ere egingo dira lanaren aurkezpena egiten denean.

2.13. ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koA, dirulaguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko BOE) eta horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko BOE).
- Zarauzko Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea (Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa.

2.14. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epea deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen.

2.15. INFORMAZIOA

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, jo www.zarautz.eus helbidera, deitu 943005122 telefono zenbakira, idatzi gazteria@zarautz.eus posta elektronikora edo galdetu Zinema pilotalekuan (Zigordia kalea,34)."

Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, alkate jaunak ontzat emana, Zarautzen 2024ko maiatzaren 28an.

OE
Alkatea

Idazkaria

AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA, *Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz,*

CERTIFICO: *Que la Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de mayo de 2024 adoptó el siguiente acuerdo:*

“BECAS DEL DEPARTAMENTO DE JUVENTUD DE APOYO A TRABAJOS FIN DE GRADO (TFG) Y TRABAJOS FIN DE MÁSTER (TFM) SOBRE ZARAUTZ

Expediente 2023WWWW0004

El Departamento de Juventud quiere otorgar por primera vez en el año 2024 unas becas para apoyar los Trabajos de Fin de Grado (TFG) y los Trabajos de Fin de Máster (TFM) sobre Zarautz. Se trata de una experiencia piloto cuyo objetivo es invitar a las personas jóvenes de Zarautz que estén cursando estudios universitarios a que en sus trabajos de fin de curso analicen las distintas realidades sobre Zarautz.

A tal efecto, y en base al artículo 23.2 a) de la Ley 38/2003, las bases de dichas becas forman parte de la convocatoria, por su especificidad y porque únicamente regularán esta convocatoria.

En su virtud, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, **ACUERDA:**

Primero.- Aprobar la convocatoria (incluidas las bases) de becas destinadas a ayudar a trabajos de fin de grado (TFG) y fin de máster (TFM) sobre Zarautz para el año 2024 (incluye las bases).

Segundo.- Aprobar el siguiente gasto:

Ejercicio	Aplicación presupuestaria	Importe
2024	1001.480.01.337.20	5.000€

Tercero.- Registrar la información requerida en la BASE DE DATOS NACIONAL DE SUBVENCIONES (BDNS) por los medios electrónicos que ésta proporcione, acompañada del texto de la convocatoria, de su extracto y de sus datos estructurados.

Tras registrar la información, la BDNS pondrá el extracto de la convocatoria a disposición del Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación. En la publicación del extracto deberá constar el código de identificación que haya asignado la BDNS a la convocatoria.

BECAS DE APOYO A TRABAJOS FIN DE GRADO (TFG) Y TRABAJOS FIN DE MÁSTER (TFM) SOBRE ZARAUTZ

ÍNDICE

1. Bases
 - 1.1. Justificación



ZARAUZKO UDALA

- 1.2. Objeto
- 1.3. Requisitos para solicitar la beca
- 1.4. Prohibición para obtener la condición de persona beneficiaria
- 1.5. Solicitudes
- 1.6. Cuantía de la beca
- 1.7. Procedimiento de concesión de la ayuda
- 1.8. Tramitación
- 1.9. Resolución
- 1.10. Partida dotacional y presupuestaria
- 1.11. Obligaciones de las personas beneficiarias
- 1.12. Pago de becas
- 1.13. Justificación del objeto de la beca
- 1.14. Publicidad
- 1.15. Devolución de la beca
- 1.16. Normativa
2. Convocatoria
 - 2.1. Objeto
 - 2.2. Solicitud
 - 2.3. Corrección de errores
 - 2.4. Prohibición para obtener la condición de persona beneficiaria
 - 2.5. Instrucción y propuesta
 - 2.6. Cuantía de la beca
 - 2.7. Partida dotacional y presupuestaria
 - 2.8. Criterios para la concesión de las ayudas
 - 2.7. Plazo de resolución y notificación
 - 2.8. Justificación del uso de la beca
 - 2.9. Devolución de la beca
 - 2.10. Publicidad
 - 2.11. Normativa
 - 2.12. Recursos
 - 2.13. Información

1. BASES

1.1. JUSTIFICACIÓN

Hasta la fecha, el Departamento de Juventud ha solido conceder dos subvenciones: por un lado, la SUBVENCIÓN DEL DEPARTAMENTO DE JUVENTUD, y por otro, la SUBVENCIÓN PARA LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS POR PARTE DE JÓVENES. Las subvenciones del Departamento de Juventud son exitosas y cada año son varios los grupos que presentan sus programaciones. Pero, en lo que respecta a las subvenciones para la realización de proyectos por parte de jóvenes, hemos tenido dificultades tanto para acercarnos a este colectivo, como para que los y las jóvenes presenten sus proyectos. Así las cosas, hemos iniciado una nueva línea de reflexión, que ha llevado a trabajar otra línea de subvenciones. Fruto de esta elaboración es la presente convocatoria de becas para la redacción de Trabajos de Fin de Grado (GRAL) y Trabajos de Fin de Máster (MAL).

